



TOLOSAKO UDALA IRAGARKIA

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA ANUNCIO

*TOLOSA GOXUA azokan postua jartzeko
oinarriak eta deialdia*

*Bases reguladoras y convocatoria para la
instalación de puestos en la feria TOLOSA
GOXUA*

Tolosako Udaleko Aitor Aguirresarobe Murgui zinegotzi delegatuak, bi mila eta hogeita seiko irailaren 10ean 2026/2534 Dekretuaren bidez, ebazpen hau eman zuen:

LEHENEN.- Tolosa Goxua Azoka Berezia antolatzea, Tolosan, 2026ko urriaren 31n, eta horren baitan 25 postu esleitzea, honako oinarri hauen arabera:

TOLOSA GOXUA AZOKAN POSTUA JARTZEKO OINARRIAK

Tolosa Goxua 2026ko urriaren 31n izango da. Bertan postua jarri ahal izateko, ezinbesteko baldintza da artisau-gozogintzan edo eztigintzan jardutea, edo gozogintzarako erabiltzen diren eta artisau-eran ekoizten diren osagai edo produktuak ekoiztea edo saltzea. Postuak oinarri hauen arabera esleitu dira:

1. Azokaren ezaugarriak:

- **Data:** 2026ko urriak 31.
- **Lekua:** Trianguloa plaza.
- **Ordutegia eta muntaketa-lanak:** postuek eta saltzeko produktuek 09:00etarako jarrita egon beharko dute, eta 16:00etarako jaso beharko dira. Ezin izango da 07:00ak baino lehen muntaketa-lanekin hasi.

Postuak muntatzeko beharrezkoak diren elementu eta mahaiak Udalak jarriko ditu, eta norbaitek eskaera edo behar bereziren bat badu, eskaera-orrian azaldu beharko du; ondoren, Azokan arloak aztertuko du.

El concejal delegado Aitor Aguirresarobe Murgui del Ayuntamiento de Tolosa, mediante el Decreto 2026/2534, de 10 de septiembre de dos mil veintiséis, dictó la siguiente resolución:

PRIMERO.- Organizar la Feria Extraordinaria Tolosa Goxua el 31 de octubre de 2026, dentro de la cual se adjudicarán 25 puestos, de acuerdo con las siguientes bases:

BASES PARA LA INSTALACIÓN DE PUESTOS EN LA FERIA TOLOSA GOXUA

Tolosa Goxua se celebrará el 31 de octubre de 2026. Para poder instalar un puesto en la misma, es condición indispensable dedicarse a la repostería artesanal o a la elaboración de miel, o a la producción o venta de ingredientes o productos artesanales que se utilizan para la repostería. La adjudicación de estos puestos se realizará de acuerdo con las siguientes bases:

1. Características de la feria:

- **Fecha:** 31 de octubre de 2026.
- **Lugar:** Trianguloa plaza.
- **Horario y montaje:** los puestos y productos de venta deberán estar colocados para las 09:00 horas, y recogidos para las 16:00 horas. No se podrán iniciar los montajes antes de las 07:00 horas.

Las mesas y elementos necesarios para el montaje de los puestos los suministrará el Ayuntamiento, y en el caso de que alguien tenga una demanda o necesidad especial, deberá indicarla en la hoja de solicitud, que será estudiada por el área de Ferias.



2. Postuak: guztira, 25 postu jarriko dira. Honako hauek bakarrik saldu ahal izango dira: artisau-gozoek, ezia —betiere norberak ekoiztutakoa bada—, eta artisau-eran ekoiztutako gozogintzarako osagaiak edo produktuak.

2. Puestos: en total, se instalarán 25 puestos, y sólo se podrán vender dulces artesanales, miel —siempre que sea de producción propia— e ingredientes o productos que se utilicen para repostería artesanal.

Esleituko diren postuetatik gehienez % 25 izango dira ezia edo artisau-eran ekoiztutako gozogintzarako erabiltzen diren osagaiak edo produktuak saltzekoak.

Udalak, postuen banaketa egiterakoan, postuak jartzeko baino leku gehiago edo gutxiago edukiko balu, postu-kopurua handitzeko edo txikitzei aukera izango du, 5. artikuluan zehaztutako irizpideen arabera.

El número máximo de puestos a adjudicar para la venta de ingredientes o productos destinados a la elaboración de miel o repostería artesanal no podrá exceder del 25 %.

Si el Ayuntamiento, en el momento de la concesión de los puestos, contase con más o menos espacio del previsto, procederá incrementar o reducir el número de puestos, según los criterios establecidos en el artículo 5.

3. Baimen-eskaera: bai pertsona fisikoek, baita pertsona juridikoek ere, aurreko artikuluan adierazten diren produktuak saltzeko baimena eska dezakete, produktu horiek ekoizten edo saltzen badituzte.

3. Solicitud de autorización: tanto las personas físicas como las personas jurídicas podrán solicitar la autorización de venta de los productos referidos en el artículo anterior cuando produzcan o vendan dichos productos.

Azokan postua jarri ahal izateko, ezinbesteko baldintza da artisau-gozogintzan edo ezigintzan jardutea, edo gozogintzarako erabiltzen diren eta artisau-eran ekoizten diren osagai edo produktuak ekoiztea edo saltzea.

Para poder instalar un puesto en la feria, es condición indispensable dedicarse a la repostería artesanal o a la elaboración de miel, o a la producción o venta de ingredientes o productos artesanales utilizados en repostería.

- Eskaerak aurkezteko tokia eta modua:

a) Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak:

- a) Aurrez aurre, UDATEn. Ordutegia: astelehenetik, asteazkenera: 07:15-14:15. Ostegunetan: 07:15-19:00. Ostiraletan: 08:15-14:15.
- b) Erregistro elektronikoaren bidez, www.tolosa.eus webgunera sartuta.
- c) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
- d) Indarrean dauden xedapenak ezartzen duten beste edozein lekutan.

b) Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko entitateek, nahitaez, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte eskaerak, bai eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro

- Lugar y modo de presentación de solicitudes:

a) Las personas físicas podrán presentar solicitudes de las siguientes maneras:

- a) De forma presencial, en UDATE. Horario: de lunes a miércoles: 07:15-14:15. Los jueves: 07:15-19:00. Los viernes: 08:15-14:15.
- b) A través del registro electrónico, en el sitio web www.tolosa.eus.
- c) En las oficinas de Correos, en los términos que reglamentariamente se establecen.
- d) En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones vigentes.

b) Las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica propia deberán presentar las solicitudes, necesariamente, en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, así como en los restantes registros electrónicos señalados en el artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento



elektronikoetan ere. Aurrez aurreko Administrazio Komune de las Administraciones
erregistrarako aukera pertsona fisikoek bakarrik Públicas, admitiéndose el registro presencial
izango dute. exclusivamente para las personas físicas.

- Eskerak aurkezteko epea: irailaren 15etik **- Plazo de presentación de solicitudes:** del 15
urriaren 9ra (biak barne). de septiembre al 9 de octubre (ambos inclusive).

4. Aurkeztu beharreko agiriak: eskaera **4. Documentación a presentar:** para realizar
egiteko, interesdunak honako agiri hauek la solicitud, la persona interesada deberá
aurkeztu beharko ditu: presentar la siguiente documentación:

- Pertsona fisikoaren kasuan:

1. Eskaera-orkia.
2. Ordezkaritza-agiria (hala badagokio).
3. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, eskatzaileak Udalak ofizioz kontsultatzeari uko egin diotenean.
3. Tolosako udal-tasak eta eskubideak egunean izatea egiaztatzen duen agiria, eskatzaileak Udalak ofizioz kontsultatzeari uko egin diotenean.
3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) agiria, eskatzaileak Udalak ofizioz kontsultatzeari uko egin diotenean.
3. Elikagaien salmentarako:
 - 6.1. Osasun-erregistroaren agiria.
 - 6.2. Elikagaien manipulaziorako txartela edo baliokidea (ontziratutako gabeko produktuen salmentaren kasuan).
3. Erantzukizun Zibileko Aseguraren ordainagiria eta poliza (gutxienez 150.000,00 eurokoa).
3. Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea izanez gero: bizileku- edo lan-baimena.
3. Erantzukizunpeko adierazpena, postuan dagoen pertsona ez bada eskatzailea, baizik eta haren soldatapeko langilea.

- Pertsona juridikoen kasuan, gainera:

- Enpresaren ordezkaritza-agiria (eraketa-eskriturak, karguen

- En el caso de las personas físicas:

1. Impreso de solicitud.
2. Hoja de representación (en su caso).
3. Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social, cuando el/la solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio por parte del ayuntamiento.
1. Acreditación de estar al corriente de las tasas y derechos municipales con el Ayuntamiento de Tolosa, cuando el/la solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio por parte del ayuntamiento.
1. Documento correspondiente al Impuesto de Actividades Económicas (IAE), cuando el/la solicitante se haya opuesto a la consulta de oficio por parte del ayuntamiento.
1. Para la venta de alimentos:
 - 6.1. Documento de registro sanitario.
 - 6.2. Carnet de manipulador de alimentos, o equivalente (en el caso de venta de productos a granel).
1. Recibo y póliza del Seguro de Responsabilidad Civil (mínimo 150.000,00 euros).
1. En el caso de ser persona extracomunitaria: permiso de residencia o trabajo.
1. Declaración responsable, en caso de que la persona que atienda el puesto no sea la solicitante, sino persona empleada de la misma.

- En el caso de las personas jurídicas, también:

- Documento de representación de la empresa (escrituras de constitución, nombra-



izendapenak, botereak...). Ondasun-erkidegoen kasuan, erkidegoaren eraketa-agiria.

mientos de cargos, poderes...). En el caso de comunidades de bienes, documento constitutivo de la comunidad.

- Postuan dagoen pertsonari dagokionez:

- Elikagaiak manipulatzeko txartela edo baliokidea den ikastaroaren ziurtagiria, ontziratu gabeko produktuak salduko badira.

- Respecto a la persona que ocupe el puesto:

- Carnet de manipulador de alimentos, o en su defecto, certificado del curso realizado, en caso de venta de productos a granel.

39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrez gain, kontsultatu edo eskuratu egin ahal izango dituzte administrazio jarduleak jada bere esku dituen edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.

En aplicación del artículo 28.2 de la Ley 39/2015, las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante, y a consultar o acceder a los documentos que ya se encuentren en su poder, o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, salvo que el/la interesado/a se oponga a ello.

5. Hautaketa-irizpideak:

Aurkeztutako eskaeren kopurua eskainitako postuena baino handiagoa delako Udalak postu kopurua murriztea erabakitzen badu, zozketa bidez esleitu daitezkeen postuak aurkeztutako eskaera guztien artean.

5. Criterios de selección:

En el caso de que el Ayuntamiento decidiera reducir el número de plazas por ser el número de solicitudes presentadas superior al de plazas ofertadas, las plazas se adjudicarán por sorteo entre todas las solicitudes.

Postu guztiak betetzeko nahikoa eskari ez badago, berriz, epea kanpo aurkeztutako eskaerak onartzeko aukera izango du Udalak, eskaerak zuzen eta beharrezko agiri guztiekin eginez gero. Kasu honetan, aurkeztutako hurrenkera hartuko da aintzakotzat.

En el caso de que no existieran solicitudes suficientes para cubrir todos los puestos, el Ayuntamiento podrá aceptar las solicitudes presentadas fuera de plazo, siempre que las mismas se realicen correctamente y con la documentación necesaria. En este caso se atenderá al orden de presentación.

6. Eskaerak baloratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak:

Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar egun naturaleko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

6. Órganos competentes para la valoración y resolución de las solicitudes:

Si existiera en el impreso de solicitud o la documentación que debe acompañarla algún defecto, o estuviera incompleta, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días naturales, contados a partir del día siguiente al de la notificación, subsane los defectos observados.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, se le entenderá por desistido/a de su petición, archivándose el



eman ondoren.

procedimiento, previa resolución.

Azoketako arloak eskaerak baloratuko ditu, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Ondoren, proposamena zinegotzi delegatuari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

El área de Ferias valorará las solicitudes mediante el correspondiente informe técnico. Posteriormente se dará traslado de dicha propuesta al concejal delegado, para su resolución.

7. Postuen kokapena: Udalak erabakiko du postu bakoitzaren kokapena zein izango den, eta informazio hori ebazpenean bertan jasoko da.

Ebazpena Udalaren webgunean eta iragarki- taulan argitaratuko da, jakinarazpen- ondorioetarako.

7. Ubicación de los puestos: El Ayuntamiento determinará la ubicación de cada puesto, que se recogerá en la propia resolución. La resolución será objeto de publicación en la página web municipal y el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de notificación.

8. Baldintzak eta betebeharrak: postua jartzeko baimena eskuratzeko, postua egokitu zaionak baldintza eta betebeharrak hartuko ditu bere gain:

8. Condiciones y obligaciones: para obtener la autorización para la instalación del puesto, el/ la adjudicatario/a deberá cumplir las siguientes condiciones y obligaciones:

- Baldintzak:

- Condiciones:

- Baimena jasoz gero, titullarrak berak jardun beharko du kasuan kasuko jardueran, bai zuzenean, bai behar bezala baimendutako enplegatu edo laguntzaileen bidez.
- Baimena aurtengo azokarako soilik izango da, eta ez du berritze automatikorako prozedurarik eragingo.
- Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu eskatzen diren baldintzen eta zerga arloko zein Gizarte Segurantzarekiko betekizunen inguruko egiaztapenak. Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen finkatu diren baldintzak, baimena bertan behera utzi ahal izango da.

- La autorización conlleva la obligación de su titular de ejercer la actividad de forma personal, directamente o a través de las personas empleadas o colaboradoras debidamente autorizadas.
- La autorización se limitará a la feria de este año, y en ningún caso dará lugar a un procedimiento de renovación automática.
- El Ayuntamiento posee la facultad de realizar comprobaciones en cualquier momento respecto a los requisitos exigidos y las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. Si se comprueba que la persona interesada no cumple las condiciones establecidas, la autorización podrá ser revocada.

- Betebeharrak:

- Obligaciones:

- Udalak salmentarako emandako udal- baimena eskuragarri izatea.
- Salmenta-prezioei, erreklamazio-orrien antolaketari eta abarri buruzko

- Tener accesible la autorización municipal para la venta otorgada por el Ayuntamiento.
- Exponer la información general fácilmente visible respecto a: precios de



informazio orokorra jendearentzako erraz ikusteko moduan azaltzea, baita norberak egindako produktuei, kalitate-markei eta abarri buruzko informazioa ere.

venta al público, disposición de hojas de reclamaciones, así como la información sobre productos de elaboración propia, marcas de calidad, etc..

- Kokapenaren arabera antolatzaileek muntatzeko eta jasotzeko ezarritako ordutegiak errespetatzea.
- Respetar los horarios de montaje y recogida establecidos por la organización en función de la ubicación.
- Salmentarako kokagunea, okupatzeko baimendutako azalera, perimetroak eta lekuak errespetatzea. Kaleek bat egiten duten tokietan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuentzat gordetako sarreretan ere ezingo dira jarri.
- Respetar el emplazamiento, la superficie de ocupación autorizada, los perímetros y lugares para la venta. No podrán, asimismo, situarse en las confluencias de calles, pasos de peatones o entradas reservadas a viviendas, comercios o vehículos.
- Uneoro bere produktuen kalitatearen arduradun izango dira, ezingo dute arriskurik eragin kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ezta kalitate edo kantitate aldetiko iruzurrik ere, eta ezingo dira produktu faltsifikatuak edo identifikatu gabeak izan, ez eta merkatura ateratzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak ere.
- Serán responsables en todo momento de la calidad sus productos, sin que puedan ocasionar riesgos para la salud o seguridad de quienes los consuman, supongan fraude en la calidad o cantidad, sean falsificados, no identificados o incumplan los requisitos mínimos para su comercialización.

- Postuan kartelen bat ipintzen bada, edozein motatakoa izanda ere, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du, kontuan hartuta zer zehazten duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, eta Tolosako Udaleko Euskararen Erabileraren Normalkuntza Plana betez. Kartel horiek egiterakoan erabiliko diren mezuek errespetatu beharko dute emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia, hizkuntza inklusibo ez-sexista erabiliz, Tolosako Udalaren Berdintasun Planak dioena errespetatuz.
- Si se coloca algún tipo de cartel en el puesto, el mismo deberá redactarse en euskera o en las dos lenguas oficiales, respetándose tanto el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, como el Plan vigente de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa. Asimismo, los mensajes utilizados a la hora de realizar estos carteles deberán respetar la normativa de igualdad entre mujeres y hombres, utilizando lenguaje inclusivo no sexista y respetando el contenido del Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

9. Ez-betetzeak: zortzigarren artikuluan jasotako atalak betetzen ez badira, Udalak saltokia ezartzeko baimena kenduko dio arau-hausleari, eta ez dio 2027ko azoka berezian

9. Incumplimiento: En caso de incumplimiento de los apartados recogidos en el artículo 8, el Ayuntamiento retirará al/la infractor/a la autorización para la instalación del puesto, y no



TOLOSAKO
UDALA

2026MAZB0005

parte hartzen utziko.

le permitirá participar en la feria especial de 2027.

10. Interpretazioa: saltokirako eskaera aurkezteak honako arau hauek guztiak onartzea dakar. Arauak interpretatzerakoan zalantzarik izanez gero, Azoketako arloak ebatziko du.

10. Interpretación: la solicitud para la instalación de un puesto supone la total aceptación de las presentes condiciones. Cualquier duda sobre su interpretación será resuelta por el área de Ferias.

11. Oinarriak indargabetzea: oinarri hauek indarrik gabe geratuko dira, baldin eta Tolosa Goxua ezin bada egin ezinbesteko arrazoi baten ondorioz, agintari eskudunek hala erabakita, edo behar bezala justifikatutako beste inguruabar batzuen ondorioz.

11. Derogación de las bases: las presentes bases quedarán sin efecto si la Feria de Tolosa Goxua no pudiera celebrarse por fuerza mayor, por decisión de las autoridades competentes u otras circunstancias debidamente justificadas.

Tolosan, 2026ko irailaren 11n, En Tolosa, a 11 de septiembre de 2026, la
Antolakuntza Lan Esparruko zinegotzi concejal del Ámbito de Trabajo de
delegatua, Cristina Pelaez Errazquin. Organización Cristina Pelaez Errazquin.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026MAZB0005-IRAGARKIA/ANUNCIO (TOLOSAKO UDALA)